


8. kapitulua

Komunikazioa



Elkarrizketa publikoa Hariak Estrategiako lau ibilbide edo ardatz estrategikoetako bat izateak esan nahi du Hariak Estrategiak garrantzi handia ematen diola komunikazioari, funtsezko tresna edo elementu gisa.

8.1. Indar-ideiak

Jarraian laburbildu dira Hariak Estrategiaren inguruko komunikazio guztietarako inspirazioa eta erreferentziak eskaintzen dizkiguten hamar indar-ideiak:

1. Erronka kolektiboa

Gipuzkoako gizarte eta bere erakundeak kezkatuta daude herritar batzuek sentitzen duten bakardadearekin eta esku hartu behar dutela uste dute. Pertsona horiek asko edo gutxi badira ere, haien arazoa gure arazoa ere bada.

2. Garaien seinale

Zalantzarik gabe, gure gizarteak aurrerapauso handiak eman ditu zentzu eta alderdi askotan azken berrogeita hamar urteetan, baina indibidualizazio handiagoak eta banakoen ibilbideen aniztasunak bakardade arrisku handiagoa dakar geroz eta pertsona gehiagorentzat. Askatasun handiagoa eta aukera gehiago ditugu eskura, baina lotura galtzeko arriskua areagotu da eta, horrekin batera, bakardade soziala, emozionala eta existentziala sentitzeko arriskua ere.

3. Prebentzio proaktiboa

Bakardade egoeren areagotze horretarako konponbidea ez da aurreko gizarte ereduetara itzultzea, baizik eta bakardadea prebenitzen duten jarduketak probatu eta sustatzea, bakardade arriskuaren edo bakardadearen larriagotzearen aurrean pertsona gehiago babestu ahal izateko.

4. Lankidetzaren publiko-soziala

Bakardadea prebenitzea eta jorratzea halaberrez gizartearen partaidetza eskatzen duen erantzukizun publikoa dela uste dugu.

5. Zaintzak

Zaintzak lehenesten dituen Gipuzkoa bat bultzatu behar dugu, non adina edo beste edozein arrazoi dela eta erabakiak hartzeko edo eguneroko jarduerak egiteko autonomia mugatuta duten pertsona guztiek laguntza sareak eskura dituzten, bai lehen mailakoak zein profesionalak ere.

6. Harremanak

Lurralde dentsu bat sustatu nahi dugu, harreman afektiboak eta elkarlaguntzari dagokienez, intentsitate maila guztietan, hots, gizarte abegitsu, irisgarri eta lagunkoia.

7. Komunitatea

Komunitate dinamikoak, aktiboak eta parte hartzaileak sustatu nahi ditugu, topaketarako, lankidetzarako eta baterako ekoizpenerako aukera ugari eskaintzen dituztenak.

8. Zeharkakotasuna

Bakardadeak prebenitu eta jorratzea jarduera sektore eta gizarteko esparru guztien ardura da: hirigintzatik aisialdira, lan arlotik espazio publikora, osasun zerbitzuetatik hezkuntza zerbitzuetara, industria teknologikoetatik ostalaritzara.

9. Eragileen sarea

Erakunde publiko eta gizarteko eragile guztiei gonbidapena luzatzen diegu Hariak sarearekin bat egin dezaten, Gipuzkoako bakardadeei aurre egiteko estrategia partekatu honen parte izan daitezen. Hariak sareko kide izatea da zeregin kolektibo honekin inplikazio aktiboa hartzea.

10. Elkarrizketa positiboa

Bakardadeei buruzko elkarrizketa positibo bat abiarazi nahi dugu, guztioi bakardade horiek gure bizitzan antzematen laguntzen diguna eta pertsona, komunitate eta gizarteko eragile eta erakunde guztien eskura dauden ekintza zehatz eta egingarriak estimulatzen dituena, bakardadeak prebenitu eta gainditzeko geroz eta gaitasun handiagoa duen gizarte bat eraikitzen hasteko. Bakardadeen inguruko elkarrizketa positibo batek elkarrizketa publiko zorrotz, inklusibo, proposatzaile, ahalduntzaile eta jarraitua eskatzen du. Hori guztia beharrezkoa da diskurtso nahasgarri, partzial, estigmatizatzaile, alarmista edo iragankorrak ezeztatzeko.

8.2. Hariak Estrategiaren inguruko komunikazio guztietarako irizpideak

“Hariak azaldu” (edo komunikatu) behar den bakoitzean, indar-idea hauek kontuan hartu beharko ditugu, izan ere, lagungarriak dira Estrategiaren diseinu xehatua jasotzen duen dokumentuan formatu eta lengoia teknikoan islatzen diren edukiak laburbildu eta gizarte osoari helarazteko.

Inguruabarren arabera eta, zehazki, hartzailen arabera, komunikazio egoera bakoitzerako helburuak, edukiak, dinamikak eta baliabideak ezarri beharko dira, betiere ahaztu gabe Hariak Estrategiaren inguruko komunikazio guztiak Estrategian bertan aipatzen den elkarrizketa publikoaren ibilbide estrategikoaren barne daudela.

Estrategia jasotzen duen dokumentua izan arren kasu bakoitzean helarazi nahi diren edukiak hartu eta aukeratzeko tokia, logikoa denez, denbora aurrera joan ahala, Hariak komunikatzeko baliagarriak diren esperientzia eta material berriak sortuko dira.

Gogoratu behar da Hariak Estrategiak sortu eta mantendu nahi duen elkarrizketa publikoa (komunikazioa) ez dela halabeharrez bakardadearen edo bakardadeen ingurukoa izan behar esplizituki. Aldiz, interesgarriena litzateke hariak marka geroz eta gehiago elementu positiboekin (hala nola zaintzak, harremanak edo komunitatea) lotzea, eta ez horrenbeste bakardadearekin.

Komunikazio ekimenak edo ekimenen komunikazioa garatu ahala, horretarako bitarteko egokiak hautatuko dira. Honela, esaterako, webguneko mapa interaktiboa baliabide ona izango litzateke Hariak sarearen zabaltasuna eta aberastasuna agertzeko, eta film labur bat egokiagoa izango litzateke strategiaren balioak adierazteko.

Bi urteko jarduketa plan bakoitzean, informazioaren publikoa edo hartzailak zehaztuko dira, bai eta erabili beharreko mezuak eta euskarriak ere.

8.3. Hariak identifikatzeko kudeaketa

Estrategia indartu, dinamizatu eta indartze aldera, eta berarekin bat datozen eta berau zuzentzen den eragile eta pertsona guztiek estrategia identifikatzeko, esparru honetan garatzen diren jarduketak eta inizatibei begira funtzionamendurako jarraibide batzuk proposatzen dira, bai ingurune fisikorako, eta bai eremu digitalerako.

Egokia da Hariak marka erabiltzea balioa ematen duenean, hau da, egoeraren formaltasun-mailaren arabera beharrezkoa edo komenigarria denean aipatzea jarduera, espazio, pertsona edo objektu bat estrategian kokatzen dela (edo strategiarekin lotzen dela). Adibidez, proiektu bateko boluntario bat herriko plazan badago eta harremanak sortzen laguntzen bada, ez du estrategia identifikatuko duen txalekorik eramango. Haatik, sentsibilizazio hitzaldi bat antolatzen bada, kartelean Hariak marka agertzea interesgarria izango da.

Hariak marka aipatzea komeni da idatzizko (logotipoa) eta ahozko komunikazioan, haren zentzua eta balio partekatuak gogora ekarriz, estrategian jasotako terminoetan eta zentzu positiboa eta unibertsa duten esaldien eta testuinguruaren barruan, arazo espezifiko eta kolektibo jakinekin lotzea saihestuz. Edozein konnotazio paternalista edo estigmatizaziotik aldendu beharra dago. Hariak marka kode moralekin edo jarrera ideologiko partikularrekin lotzea saihestu behar da, bestalde: Hariak inklusioa eta aniztasuna da (lurreko, generokoa, belaunaldikoa eta kulturala).

Estrategiaren esparruko jarduketetan eta inizatibetan erabilitako euskarri fisiko eta idatzizko dokumentazioan Hariak-en grafia, sinbologia eta koloreen erabilpena, horretarako ezarritako jarraibide teknikoari jarraituko zaie. Halaber, bereziki zainduko dira marken arteko elkarbizitzarako ezartzen diren arauak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren beste batzuk barne). Beraz, ezartzen diren elementuak aldatzea saihestuko da, haien osotasuna eta jabetza intelektuala errespetatuz. Horretarako behar izango diren bitarteko eta baliabideak Adinberri Fundazioak jarriko ditu.

Sare sozialetan #Hariak etiketa erabiltzea komeni da eta, oro har, Interneten strategiarekin zerikusia duen guztiaren konexioa eta haria erraztu beharko da.

Hariak euskarazko hitza da eta, horrekin batera, euskararen erabilera zaindu eta sustatuko da.

Aurrerantzeko aldi baterako plangintzetan Hariak strategiaren irudi eta identitatearekin lotutako helburuak eta prozesuak ezarriko dira. .